BESTELAKO XEDAPENAK

HERRI ADMINISTRAZIO ETA JUSTIZIA SAILA

1552

EBAZPENA, 2014ko martxoaren 17koa, Funtzio Publikoko zuzendariarena, Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzietako Salari administrazioarekiko 107/2013 auzi-errekurtsoari dagokion administrazio-espedientea (prozedura laburtua, 98 Legea) igor dakiola ebazten duena, batetik, eta, bestetik, aipatu salan ager daitezen, interesdun izan litezkeenei epea jartzen diena.

Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzietako Salak 107/2013 auzi-errekurtsoa hedatzeari dagokion administrazio-espedientea (prozedura arrunta, 98 Legea) bidaltzeko eskatu du. Euskal Autonomia Erkidegoko sail eta erakunde autonomoetako lanpostuen–Zentroko horniketa eta matenimenduaren arduradun-lanpostua– zerrendak– onartzearen gainean Herri Administrazio eta Justizia Sailaren uztailaren 30eko Dekretuko II. eranskinaren aurka, honako hauek aurkeztu zuten errekurtso hori: Xabier María Agirre Kerexeta, Faustino Ranedo Gomez, María Guadalupe Camino García, Iñigo De Loyola Ortuzar Angulo, María-Angeles-Amen eta ELA sindikatua.

Horregatik, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 38., 48. eta 49. artikuluetan agindutakoa betez, honako hau

EBATZI DUT:

1.– Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioarekiko Auzietako Salari eskatu dituen administrazio-espedienteak bidaltzea.

2.– Espediente horretan interesdun izan daitezkeenei bederatzi eguneko epea ematea, aipatu auzitegiko Administrazioarekiko Auzietako Salan ager daitezen.

3.– Errekurtso horretan aurkaratutako administrazio-jarduerarekin lotura daukaten honako administrazioarekiko auzi-errekurtso hauek daudela jakinaraztea:

– Administrazioarekiko 648/2012 auzi-errekurtsoa (prozedura arrunta), ELA sindikatuak aurkeztua, Justizia eta Herri Administrazio Sailaren maiatzaren 8ko 65/2012 Dekretuaren aurka. Dekretu horrek onartu baitzituen Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren sail eta erakunde autonomoetako lanpostuen zerrendak. Auzi-errekurtso hori Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzietako Salaren 3. sekzioan bideratzen ari da.

– Administrazioarekiko 676/2012 auzi-errekurtsoa (prozedura arrunta), HITZA sindikatuak aurkeztua, Justizia eta Herri Administrazio Sailaren maiatzaren 8ko 65/2012 Dekretuaren aurka. Dekretu horrek onartu baitzituen Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren sailetako eta erakunde autonomoetako lanpostuen zerrendak.

4.– EHAAn argitara dadila agintzea.

Vitoria-Gasteiz, 2014ko martxoaren 17a.

Funtzio Publikoko zuzendaria,
JUAN M.ª BARASORDA GOICOECHEA.